

# U

Begoña Vicario  
Animaziozko zinema  
errealizadorea da Begoña.  
Besteak beste, Espainiako  
Zinema Akademiak  
ematen dituen Goya sari  
baten jabe da.



irudia

# Zezena Urdulizen

Hurbil, oso hurbil ditugu  
animaliak, baina aldi berean urrun,  
oso urrun. Elkarren ondoan bizi  
gara baina mundu ezberdinetan.  
Miresgarria da islatzen duten  
patxada, lotsagabetasuna...



ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiko  
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta E.B.E. HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: [aldizkaria@euskalnet.net](mailto:aldizkaria@euskalnet.net) /

Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru ERREDAKZIOA: Esti Ezkerra, Andoni Llosa, Konrado Mugerza

ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron INFOGRAFIA: Guillermo Almagia MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez

KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Xabier Buenetxea, Itsaso Arana, Aitor Elizegi, Algortako Bertsolari Eskola ADMINISTRAZIOA:

Konrado Mugerza PUBLIZITATEA: Amaia Bilbao (94 463 92 63, 94 491 13 37) INPRIMATEGIA: GESTINGRAF





Barrukoa



# SANTANA KIOSKOA

Prensa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat

BEROGAILU ETA ITUR-



Sarrikobaso 15 48990

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prensa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarrerriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13  
T: 430 22 13 T: 460 02 88  
GETXO ALGORTA

# Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9 Ainguruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

e-mail elkarrizketa

## Laura Moreno, "au-pair" Alemanian

Alemania

Helbidea: aldizkaria@euskalnet.net

- Laura Moreno
- 23 urte, getxoztarra
- Turismon graduatua
- Urte hasieran Alemaniara jon zen

### "Mundu guztiko jendearekin elkartu naiz hemen"

Non bizi zara? Zehazki, zein herritan?  
Göttingen-en bizi naiz. Alemaniako erdialdean dago, Behe Sajonian. Hau oso herri zaharra da, Erdi Arokoa. Badago unibertsitate bat eta honek bizitasuna ematen dio herriari. Inguruan natura itzela da, oso polita.

Zertan zabilta hor? Zein lan egiten duzu?  
Aleman hizkuntza ikastera etorri nintzen, au-pair bezala egiten dut lan. Hiru haur zaintzen ditut eta gaztelaraz hitz egin behar diet.

Kontatu apur bat zure egun bat hor zelakoa den?  
Goiz jaikitzen naiz, eta alemana ikastera joaten naiz unibertsitatera. Klasean giro itzela egoten da. Mundu guztiko jendearekin elkartu naiz hemen. Hemengo unibertsitateak oso izen ona dauka (Deustukoak bezala gure herrian) eta horregatik jende piloia erortzen da hona. Eskola amaitu ondoren lagunekin bazkaltzen dut eta gero etxera etortzen naiz haurrekin egotera eta etxeko lanak egitera laguntzen. Euren ama Bilbon bizi izan zen aspaldian eta horregatik nahi du seme-alabek gaztelaraz ikastea. Arratsaldeko zortzietan libre egoten naiz eta ia egunero igeri egitera joaten naiz, korrika egitera edo bizikletaz ibiltzera. Sarritan lagunekin afariak antolatzen ditugu edo, bestela, zinemara joaten gara.

Noiz joan zinen eta noiz arte geratzeko asmoa daukazu?  
Urtarrilean etorri nintzen eta hizkuntza oso ondo ikasi arte hemen geratzeko asmoa daukat. Ez daukat bueltatzeko presarik. Urtebeteko kontratua daukat, baina luzatu daiteke.

Zergatik joan zinen Alemaniara eta ez beste edonora?  
Hasiera baten hizkuntza ikasteagatik, baina aldi berean hemengo jendeaz jakinmin handia neukan. Sarritan bidaiatzen dute eta gure aldean oso desberdinak dira.

Exetik urrun bizi izanda, zeren falta sentitzen duzu, zelako gauzak?  
Lagunak eta familia, noski. Hala ere, eurekin harremanari eusten diot. Baina behar dudana itsasoa da; haren usaina eta soinua. Nire Galea maitearen hutsunea sentitzen dut.

Horko girora egokitzeko, gogorren egin zaizuna zer da?  
Duda barik hemen egiten duen hotzera ohitzea. Eguneroko gauza da eta gauza piloia egitea eragozten du. Goiz altxatzea ere izugarri kostatzen zait; ohitura galdua nuen.

Zer da lur horretan gehien estimatzen duzuna? Zer gustatzen zaizu gehien?  
Ingurua oso ondo zaintzen dute, eraikuntza asko egurrezkoak dira eta kaletik zoazela beti hor egon direlako inpresioa duzu. Ingurugiroa asko zaintzen dute, guztiak birziklatzen dute; gure etxean lau zakarrontzi ezberdin ditugu. Irakaskuntza dohainekoa da, unibertsitatea barne. Aukera asko dago, pentsa ezazu, nire lagun bat thailandiera ikasten dabil. Gainera, kultur gaietan interes handia dago hemen. Egunero gauza interesgarriak ikusteko aukera egoten da. Hemen aurkitu dudana beste gauza interesgarri bat zerbeza da; mota askotakoak daude eta guztiak gozoak.

Pasadizoren bat?  
Lehen esan bezala, bizi naizen familiako ama Bilbon bizi izan zen. Ederto hitz egiten du gaztelaraz eta euskara apur bat ere badaki. Gainera, Pantxoa eta Peio izugarri gustatzen zaizkio, egunero jartzen ditu euren CDak, askotan elkarrekin abesten ditugu euren kantak.

Besterik ezer aipatu nahi duzu? Agurren bat...  
Maite dudana jende gutzia agurtu nahi nuke. Jakin dezatela jaiak ez direla ni barik berdinak izango; ja, ja, ja...

JOSE JOAQUÍN LOBO



## Mozorroa

Garizuma aurretik egiten diren olgeta-egunak dira inauteriak. Hain zuzen ere, garizumari kontrajarriz sortu ei ziren. Bereztasunik aipagarriena jendea mozorrotzea da eta honetarako giza-irudimenak ez du mugarik. Adibide bat: goiko argazkia.



# Norabide ezberdineko pasioak

Tronpetajoleak tronpeta jotzen du, gozotasuna dario tronpetari, notak airean hedatzen dira, horrela, maitasunaren dantza sinbolikoan murgildurik, tronpetajoleak tronpeta jotzen du. Sentsuala baino sentsualagoa den soinuarekin batera doa mezu sotila. Tronpetajoleak sortutako keinua musika aretoan dagoen anderearen bila doa.

Keak sortutako formaz baliatuta pasioaren mezua badoa, badoa ile gorridunaren bila. Musika aretoaren izkinan dagoen andreak zerbait somatu du bere gorputz osoan. Mugitu da, sentsazio kilikagarria du bere baitan, orduan bere mahai borobilan dagoen kandela piztuari erreparatuz, bere begiek galduta dagoen begirada erromantikoa pausatu dute kandelan, memoriaren uretan.



Tronpetajolearen begiek den dena inprimatu dute eta gauaren azkeneko melodia jotzea erabaki du. Bere esku zurbil eta ahulek tronpeta hartu dute, ezpainak busti ditu, aire beroa zulo melodikotik pasatu da eta ile gorridunari begiratzat melodia erromantiko frustratua bidali dio oraingoan, closing time.

USOA IRIGOIEN



GORRONDATXE ABESBATZA izan da aurten Getxon Agate Deuna dela-eta Kultur Etxeak antolatutako lehiaketaren irabazlea. Orain urte bi hasi ziren abesten eta 35 lagun ibiltzen dira saioetan martitzenero. Gitxitan abesten dute jendaurrean; presoren bat askatzen dutenean, batez ere, horietan ez dute hutsik egiten. Abesbatza formalagoa osatzeko asmoa dute orain. Denborak esango du. ARGAZKIA: GETXOKO KULTUR ETXEA

## San Jorge eta herengugea



basurto  
algorta S.L.  
altzariak

T: 4607162 - 4604244  
telletxe 15, algorta

**GAURKO**



GIZONENTZA-KO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

**EREAGA**  
Bidaiak  
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88  
GETXO

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78


T: 94 491 27 34

# Zer da pertsona batengan gutxien estimatzen duzuna?

EGILEAK: ITZIAR PORTILLA, JANIRE ITURRIAGA, AIALA ELORRIETA &



Ez duena lan egiten, ze gaizki egiten ditu gauzak.  
Aiora Inzunza, ikaslea (Berango)



Ez dakit, ba... in tolerantia.  
Antonio Martín, ikaslea (Urduliz)



Ba gezurrak, gezurtia den jendea.  
María Begoña Romero, etxekoandrea (Nepela)



Ez dadila izan inbidiosoa eta faltsua.  
Hori da gutxien gustatzen zaidana.  
Idoia Solozabal, langilea (Algorta)



Ba gezurrak esatea, hori ez zait ezer gustatzen.  
Inés Motero, dendaria (Plentziá)



Gutxien estimatzen dudana? Ez dakit, jendea kritikatzeko, ez dut gogoko hori.  
Maider Ayo, ikaslea (Bidezabal)



Batez ere bekaiztia, berekoia eta gaiztoa izatea.  
Humberto Inzunza, langilea (Berango)

VILLABOTAS  
JATETXEA



Menu merke eta bariatuak  
Especialitateen karta

T: 430 43 33  
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO



TORRENE 13  
48990 ALGORTA  
TF. 4911882

CALENDOS  
RIKI

UMEAK  
GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543  
AREETA



ESPAÑIAR LITERATURARIK EZ!

Ba, bai, hauxe zioen Algortatik paseatzen ari nintzela irakurtzea tokatu zitzaidan kartelak, eskuz idatzia zegoen Ikasle Abertzaleak taldearen kanpainaren (Ekin euskarari) beste kartel baten ondoran. Ez dut ulertzen zelan egin daitekeen horrelako baieztapen bat. Literatura norbanakoen sormenaren fruitua da, egilearen ondarea. Inori ez zaio bururatzen zientzia espainolarik ez, adibidez. Ez ditzagun gauzak nahastu. Badakigu euskarazko literatura baztertu izan dela, eta izaten ari dela hainbat ingurutan, konforme. Ados: gure literatura ezagutarazi

MIREN ZARANDONA

deialdia

BERANTZAGI DANTZA TALDEA

Dantzari berriak behar dituztela jakinarazi digu Areetako dantza talde honek. Gazteak, batez ere, gizonezkoak, ez dira lehen bezala gure herriko dantza taldeetara hurbiltzen. Beraz, badakizu, nahi izanez gero dantzari has zaitezke. Egin behar duzun gauza bakarra hara joatea da: Areetako Kultur Etxea, Las Mercedes 13, 2. (astelehen, astearte eta asteazkenetan 20:00etatik aurrera). Telefonoa: 617 524 480.

datua



«Euskal Herriko beste hainbat udalek bezala, Getxokoak Saharako herritarrentzako atun laten bilketari ekin dio. Aurten herritarrek 9.000 latatik gora eman dituzte»

MIKEL MARTINEZ



Leioako Gaztetxea

Duela urte batzuk inor ez zen Leioako Mendibile jauregiaren oroitzen eta egun denen ahotan dabil. Aspalditik bizilagunik ez zuen etxeak eta haren egoera tamalgarria bazen. Gazte batzuek jauregiaren bakardadea hausteko modua topatu eta betebeharrak eman zituen. Eraikina okupatu, gaztetxe batatu eta hainbat urtetan zehar kultur ekintzak antolatu dituzte. Azken hilabeteetan, ordea, eztabaida piztu da. Udalak jauregia berreskuratzeko eta museo bihurtzeko asmoa agertu du eta gaztetxe kideei eraikina hustutzeko abisua eman die. Epaitegiaren erabakia kontrakoa duten arren, gaztetxe kideak ez daude batera konforme. Gazteentzako ekintzak antolatzeko beste tokirik ez dute eta, beraz, azkenaldian etxe izan dutenarekin jarraitzea nahi dute.

MIKEL MARTINEZ



Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko hainbat bazkide

Bost urte beteko dituen honetan erronka berriei aurre egiteko beste pausu bat eman gura du Bizarra Lepoan Euskara Elkartek autofinantziazioan eta, halaber, euskaldun gehiago bildu. Hau dela-eta, Bizkaiko hainbat euskara elkarte (denara, hamaika euskara elkarte) Topagunearekin batera "EMON BOSTEKO EUSKARARI" izeneko bazkide kanpaina bati ekin dio elkarteak. Helburua elkartetako bazkide gehiago lortzea da.

Egitasmo berriak ere baditu elkarteak aurten, besteak beste, profesionalizazioa jo, bitarteko berriak lortu (egoitza, ordenadoreak...), herriko elkarte eta taldeekin euskararen erabilera sustatzeko hitzarmenak izenpetu, aisialdian euskararen eskaintza suspertu, euskaldun berriei begira antolatzen den Berbalaguna egitasmoa indartu... Hau guztia lortzeko sendotu nahi da elkarrekin (ikus aldirik azkenurreko orrialdea).

Bestalde, UKren jaiotzak Bizarra Lepoan eta aldirik berriaren arteko harremanetan eta organigraman aldaketa ekarri du; izan ere lehen elkarte bakarra zen Bizarra Lepoan eta orain ordea, aldirik argitaratzeko elkarte berria sortu da. Azpiko eskemak egoera berria oraingoa islatzen du.

Lehen elkarte bakarra, orain elkarte bi	
<b>BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA</b>	<b>UK ALDIRIK</b>
<p><b>HELBURUAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur jarduerak antolatu</li> <li>• Euskaldun berriei begira jarduerak antolatu</li> <li>• Euskararen erabilera sustatu gizarteko hainbat alorretan</li> </ul> <p>Bazkideztza arrunta: 6.000 pta.</p>	<p><b>HELBURUA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Uribe Kosta mailan euskara hutsezko hilabetekaria argitaratzea</li> </ul> <p>UK aldirik urteko harpidetza arrunta: 2.000 pta.</p>

**aldai**

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

**BILBOMICRO**

“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

Elkarte Anonimoa  
Colón de Larreategui, 25  
Tf. 4230212  
**ZERBITZU TEKNIKOA**  
Tf. 4230213  
48001 BILBAO

**BILBOMICRO**

Bodeguilla  
Butron

**gurean euskaraz!**

Bidebitarte 5 ALGORTA

**GAZTANAGA**  
**INTERSPORT**

**TRAVEL CLUB**

Lortu zure puntuak **HEMEN!!**

**Kiroletarako behar duzun guztia!**

Amesti 8 T: 4910605 ALGORTA | Sarrikobaso 42 T: 4300397 ALGORTA | Sabino Arana 93 T: 4646617 LEIOA

**Sopela**  
ate eta armairuak

Sabino Arana 14, Sopela  
t: 94 676 54 44

**Loteria Sopela**

Iparragirre 6, Sopela



# Begoña Vicario

Animaziozko zinema errealizadorea da Begoña. Bere espezialitatea film laburrak dira; dagoeneko lau egin ditu euskarri profesionalen. Besteak beste, Espainiako Zinema Akademiak ematen dituen Goya sari baten jabe da. Aldi berean irakaslea da Leioako Arte Ederretako Fakultatean.

TESTUA: JOKIN ASPURU / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

“Sorkuntza lana da; zure lana plazaratzeko beharra, zure ideiak ezagutarazteko grina”

—Nondik sortzen da istorioak kontatzeko gogo hori? Zerk bultzatzen zaitu?

—Niretzat oso gauza terapeutikoa da kasu guztietan. Nire esperientzia zuzenak edo hurbilak utzi didan behar bat da hau. Esan bezala, terapia moduan erabiltzen ditut nik pelikulak. Momentu jakin batean zerbaitek ikutzen nauean, irakurritako zeozkerk, edota bizi izandakoak, edota ezagutzen dudan baten baten istoriak... ba, horrek bultzatzen nau lan egitera, erantzun bat ematera. Azken baten, momentu jakin batean arazo baten aurrean sentsibilite bat izatean datza kontu hau.

—Azaldu gainera zelan egiten duzun lan.

—Gehienetan bakarrik egiten dut lan. Inoiz gauzaren bat egiten ez badakit laguntza eskatzen diot profesionalen bati. Dena den, prozesu gehiena nik egiten dut, gidioiarekin hasten naiz eta neuk idazten dut, dokumentazio lanak nire gain hartzen ditut, aurreproduktzioa ere bai. Ni neu naiz neure ekoizle edo produktore, nire ekoiztetxe propioa daukat

Bego Vicario deitzen dena. Gero dirua eskatzen dut erakunde publikoetan eta lortzen badut aurrera jotzen dut. Nik filmatzen dut eta soinuaz be arduratzen naiz. Garbi ikus daitekeenez, prozesu osoa nik neuk kontrolatzea gustatzen zait.

—Baina dena zure gain hartzea ez al da nekagarria?

—Beno... Egia esan, batzuetan korapilotu egiten dut, baina nahita egindako gauza izaten da. Esan nahi dut, adibidez, inoiz filmaren soinua besteren bati eskatu izan diodala. Esperimentu polita da. Oso interesgarria eta aberasgarria izaten da kanpotik filmari eransten zaizkion nabardurak ez direlako eskuarki bat etortzen alde aurretik nik pentsatutakoarekin...

—Zergatik erabiltzen duzu hain formato laburra zure istorioak kontatzeko?

—Alde batetik, lehen esan dizudanagatik. Horrela lan egin da nik dena kontrola dezaket, eta hori ezin izango nuke egin formato luzeagoa erabilita. Nire ustez, formatu luzea ko-

mertzializazioak eskatzen duen baldintza da eta ni ez nago zinema komertzialaren barruan. Eta, jakina, ez dut zertan jarraitu zinema honen irizpiderik. Zer esan nahi duen horrek? Bada, librea naizela nahi eta behar dudan formato aukeratzeko. Nik gidioiak eskatzen didan denbora ematen diot filmari, eta horixe erabiltzen dut, ez gehiago ezta gitxiago ere; gauza bat bi minututan konta badezaket, ba, bi minutu erabiliko ditut eta istorioak hamar minutu eskatzen badizkit, ba, hamar erabiliko ditut.

Bestalde, kontuan izan behar da animaziozko zinemaren teknika irudi errearen teknika (ohizko filmeak) guztiz kontrakoa dela. Hau da, irudi errealekoan objetiboaren aurrean gertatzen dena erregistratu egiten da, nolabait; animaziozkoan, berriz, norberak prestatzen du objetiboaren aurrean gertatu behar dena: marrazkiak, fitxak, formak, panpinak... Eszenografia guztiz artifiziala da. Fotogramaka filmatzen dira, hau da, argazkiak hartzea bezalakoa da: bat hartu, eszenografian aldaketa txiki



“Terapia moduan erabiltzen ditut nik pelikulak”

bat egin eta gero beste bat hartzen da. Eta horrela milaka aldiz. Esan nahi dut existitzen ez den mugimendua norberak sortzen duela. Irudi errelekoan existitzen den mugimendua grabatzen da, besterik ez. Animaziozko film bat ikusten duenak pertzepziozko ariketa handia egin behar du, errez nekatzen da eta horregatik izan behar du laburra. Pentsatu, esaterako, Walt Disneyk egiten dituen marrazki bizidunetako pelikulak (animaziozkoak dira) ordubete eskas irauten dutela eta ez filmeen iraupen standarra izaten den 90 minutuak.

—Hau zer da zuretzat, ofizioa ala afizioa?

—Hau niretzat ez da zaletasun

bat, ez da hobby bat. Nik ez dut neure bizimodua zinea egiten irabazten, baina hori horrela bada, hemen hori gertatzeko baldintzarik ez dagoelako da. Hemen film labur egileek ez dute hortik bizitzerik; beste leku batzuetan, ordea, bai. Adibidez, Frantzian, badago film laburra egiteko bizi den jendea. Hemen bigarren lan bat behar duzu. Baina horrek ez du esan nahi hau hobby bat denik. Hobby-a denborapasa da, eta ez lana. Sorkuntza lana da, zure lana plazaratzeko beharra, zure ideiak ezagutarazteko grina. Edozein artistak hori egin behar du. Badituzte lagun asko fakultatean, irakasle direnak, baina aldi berean badituzte euren tailerrak eta arrat-

saldeak pintatzen ematen dituzte buru-belarri, edota eskulturak egiten. Batzuetan saldu egiten dira eta beste batzuetan ez; baina hori ez da hobby-a. Nire ustez, benetako profesionalak dira.

—Film labur gitxi ikusten dira hemen inguruan...

—Aukera gitxi daude bai, baina egon badaude. Esaterako, orain martxoaren 8 dela eta Getxon batzuk ikusteko aukera egon da, Bilboko Jaialdia ere hortxe dugu eta oso gauza ederrak ikus daitezke horietan; Lekeitioko Jaialdia ere badaukagu... Nik uste dut interesa badagoela. Oso hurbil daukagun gauza da hau, pelikulak egunero ikusten ditugu eta film laburrak horixe beste-

## FILMOGRAFIA

Geroztik ere (1993), 2 min.: poliziak etxe batean egindako miaketa baten eta bortxaketa baten artean egindako paralelismoa.

Zureganako grina (1996), 4 min.: irudi abstraktuen bidez giza harremanen metafora.

Pregunta por mí (1996), 4 min.: emakume etorkin baten istorioa. (Goya Saria)

Haragia (1999), 12 min.: desagertuen gaineko filma, desagertuen gorpuak agertu arte bizirik jarraitzen dute ingurukoentzat.



# Naturatik bizi


Gauza jakina da *lehen sektorean* lan egiten dutenak gero eta gitxiago direla Euskal Herrian eta Uribe Kostan zer esanik ez. Guk hauetako batzuk ezagutu nahi izan ditugu. Arlo ezberdinetan aritzen dira baina badituzte hainbat gauza antzekoak: etsai berberak dituzte (izurriteak, eguraldi kaxkarra...), primerako produktuak sortzen dituzte, guztiek han edo hemen euren lanagatik sariren bat jaso dute... Eta, gainera, bulegoetan lan egiten dugunok ez dugun irribarre osasuntsuaren jabe dira guztiak.

TESTUA: ERREDAKZIOA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ



## Loreak Mertxe Serrano

Lemoizko Obabe inguru bakarti eta ederrean bizi da Mertxe, han dauka negutegia eta han landatzen ditu geroago salduko dituen lore ederrak. Horretan ibiltzen direnak espezie bakarra lantzen badute ere (arrosak, krabelinak...) berak kontrakoa egiten du: espezie asko kopuru gutxitan; guztira 50 lore mota baino gehiago. Lore sorta freskoak saltzen dituen arren, lore sikuekin arrakasta handiagoa lortu du. Saguzarrak lotan bailiran, zintzilik sikatzen dira loreak bere ganbaran. Prozesua erraza da: loreak moztu eta ahozpezeskegi (euren formari eusteko) leku ilun (kolorerik ez galtzeko) eta leku aireztatuan. Lore siku batek urteetan iraun dezake, ez da opari txarra. Lana nahibeste dagoela diosku, baina berak ia ez du baserririk urtetan eta, hortaz, gitxi behar du bizitzeko, eta, ondorioz, lan, behar beste baino ez du egiten. Gainera, oso saltzaile txarra dela esan digu barre artean. n



## Ganadua Juan Ugarte

Egun osoa behar ematen du Juanek Larrañazubiko, Artea azpiko bere etxaldean; eguna argitzen duenetik eguna ondo ilundu arte. Eta ezin da beste modu batera izan, bakarrik dabil-eta behar ematen. Getxoko akabuko abeltzaina da eta 60 burutik gora ditu kortan. Eta ez hori bakarrik: txarriak, oiloak, untxiak... eta, gainera, solo eder bat be lantzen du. Harrotasun umila igartzen zaio dena erakusten diguneari. Supermerkatuetan saltzen den okela gehiena kantopetik ekarrikoa dela diosku, kalite txar txarrekoa, sartainen jarri orduko txirri-txirri lotzen dena. Saltzen den prezioan ezinezkoa da okela hori ona izatea. Bere okelak, berriz, euskal labela du, pentsu naturalaz elikatzen ditu animaliak: garia, galtzua, lastoa... eta hori da sekretu bakarra. Ferietan hainbat sari lortu ditu, baina bere espezialitatea oilarrak dira, hor ez dauka kontrariorik. Eten barik bere pena azaltzen digu gazteek baserriko lana baztertu dutelako. n

## Bendeja Adela Andikoetxea

Negutegiak prestazen harrapatu dugu Adela. Ezkondu ostean bere hitzetan tontamentean hasi zen Adela soloa lantzen eta orain ez zaizkio etxean sartzen bere jeneroa dela-eta eskuratu dituen sari eta kopa guztiak. Azoka guztietan saritu dute: Gernikan, Bilbon... Urtero 50 azoka baino gehiagotan hartzen du parte eta gehiagotara ez da joaten ezinezkoa delako. Saltzeko (eta hau da berari gehien gustatzen zaiona, jendearekin egotea) onenarikoa Algortako San Lorenzo dela esan digu. Jendeak jeneroa garestia dela esaten ei dio eta bera ez da nekatzen soloak ematen dituen behar eta neke guztiak esplikatzeko. Gainera, honek ez du bizitzeko ematen eta bere irabazia, fabriketan lan egiten duen senarraren soldataren osagarria da. Ohizko produktuak lantzen ditu baina ikertzea be gustatzen zaio Adelari. Hori bere jeneroan igartzen da: piper moreak, madari itxurako tomate horiak, gjndila horiak... n

## Eztia Koldo Belasko

Antzina erle-mordo edo erlakume bat ikusten zenean, baserrietan harriak elkarren kontra kolpatzen zituzten. Erleak, trumoiak zirelakoan babes bila pausatzen ziren. Zein baserrietan pausatu, hura erlakumearen jabea. "Polita izan behar zuen ha entzuteak eta ikusteak" diosku Koldo erlazain algortarrak. "Eztiola" markapean saltzen du bere eztia. Laurehun erlauntzatik gora ditu han eta hemen, eta urteko 8.000 kilo inguruko produktzioa. Bizkaian bost bat besterik ez dira erlazain profesionalak. Aurten Bilboko Santo Tomas azokan bere eztia saritu diote baina hau ez da egun batetik bestera lortzen. Hamabost urte zituela bazituen Koldok hamabost erlauntza eta harrezkero beti ibili izan da erleekin harremanetan, harreman itzela bere hitzetan. Hartu-eman horretan ez dira eztenkadak faltan izan, baina dagoeneko inmuzitatuta dago eta, garrantzitsuena, eskarmentuak esaten dio norberari noiz eta zelan hurbildu erlauntzara. Uribe Kosta (Koldok baditu erlauntzak Plentzian), dagoen klima epelagatik oso leku aproposa da erleentzat. Gainera, sasi asko dago eta sarritan erretzeko besterik ez dutela balio pentsatzen dugu be, oso ona da erleentzat, gitxi behar dute-eta hauek eztia egiteko. n



## PRODUKTU HAUEK EROSTKO

Mertxeren loreak: Urduliz, Old Market; Viveros Gondra Mungia.  
Adelaren barazkiak: Portugaleteko plazan edo bere etxean, Goieta 10, Urduliz.  
Juanen okela: Angel Moyanoren harategian, Euskal Herria kalea, Algorta.  
Koldoren eztia: Algortako "Manolo el patatero", "Etxeko Mahaia" Portu Zaharrean edo telefono honetan: 94 6808054.





MARISOL RAMIREZ



Marisol Ramirezek kazetaritza ikasketak eginak ditu. Eskarmentu handiko prentsa argazkilaria da. Besteak beste, Egunkaria-n, El Mundo-n, Argia-n argitaratu dituzte bere argazkiak. Gaur egun Gara egunkarian dihardu lanean.

Ezkerrean, banderaren zin egitea Mungian Azpian, "De hecho, parejas" Ondoan, kalegarbitzaileak Bilboko jaietan

Ondoko orrialdean: Nudisten lasterketaren egunean Ijitoak San Frantziskon Gizona depilatzen





# ERHARD HOREL BEREGOR

UNAI ELORRIAGA

“Começo a conhecer-me. Não existo.”  
F. Pessoa, Poemas de Álvaro de Campos

**U**ste baino zailagoa da Erhard Horel Beregorren biografia idaztea. Zer espero liteke Literatur Sari Nazionala jasotzera bizikletaz joan zen tipo batengandik. Zer espero liteke etxean irakurtzeko libururik ez zeukalako hil zen tipo batengandik. Laurogeita hamahiru urtez. Hala esan omen zion arrebari, liburu guztiak irakurri ditut, logelara noa, hiltzera. Munduan idatzitako liburu guztiez ari zela dioenik ere bada. Arrebak, arreba estandar guztien soseguaz, bere burua eskaini zuen kalera irten eta libururen bat erosteko. Ez zuela merezi, erantzun omen zion Erhardek, atsedena behar zuela eta eternitate apur bat.

Erharden jaioterria izan da nire lehenengo zalantza. Aukera bi pentsatu ditut: Australia eta Dublin. Australiakoa zela jarriko banu, idazle naturala, sanao imajinatuko luke jendeak. Ez baina. Erhard Horel Beregorren nobeletako egiturak bitxiak dira australiarra izateko. Dublindarra zela jarritz gero, oster, erreferentzia erlijiosoak esperoko lirarete eta ez da halakorik Erharden obra osoan; ez agerikorik behintzat. Europa ekialdean jaio zela idatzi dut azkenean.

1880-89 artean jaio zela badakit baina urte zehatza ematea falta zait: 1883an jaioaraziko al dut Franz Kafka bezala, 1882an James Joyce bezala, 1888an Gómez de la Serna edo nire herriko eliza bezala. Bestetik, Fernando Pessoaen jaiotze-datetako bat aukera nezake (Pessoa behin baino gehiagotan jaio baitzen: 1887an, 1889an, 1890ean). Zozketa egin eta nire herriko elizaren urte berean sortu zen Erhard Horel Beregor: 1888an.

Txikitatik izan zen aldrebesa Erhard. Gurasoek, ezusteko modernitate-alardean, eskola

esperimental batean matriculatu zuten. Hamaika urte bete zituenean, ordea, eskola tradizionalera aldatzeko eskatu zuten, ganorazko hezkuntza behar zuela berak, gauzak buruz ikasi-eta.

Ikasketak amaitu eta lanpostu bi eskaini zizkion politikari batek: bankuko bulegari edo parke-zaindari. Parke-zaindaritza hautatu zuen azkenean; gauza arrunt kurioso, bestalde, hirian ez baitzegoen parkerik. Horrek, hortaz, idazteko denbora libre ugari uzten zion, hogeita hamazazpi urte ondo egin arte libururik plazaratu ez bazuen ere. Perfekzioaren bila zebilen Erhard, txokolatea jaten zuen bitartean, galtzontzilo hutsean.

1923an Dadá aldizkariaren hirugarren zenbakia jaso zuen postaz baina hori ez dut idatziko, zaila baita honelako biografiak irakurtzen dituztenei abangoardismoa azaltzea eta are zailagoa dadaismoa. Horren orde, neska beltzaran batekin ezkondu zela jarriko dut eta oso ederra zela eta dotorea. Erretraturik ez dut ipiniko, hala ere.

Pelikuletako tranbiak ere asko gustatzen zitzaizkion.

Biografiaren amaierak eman dit lan gehien; izan ere, zeppelin batetik jausita hil zen Erhard Horel Beregor 1944an, gutxi gora-behera x urte zituenean. 4



Unai Elorriaga algortarrak 27 urte ditu eta Euskal Filologia ikasten ari da Deustuko Unibertsitatean. Baditu ipuin saritu batzuk eta orain bere lehenengo nobela idazten dabil.

# bidaiak



## Nepal-era

Diru gutxigatik txango ederra egin daiteke Nepalera; Kristina Garate algortarra han izan zen

**N**epal hitza aipatzen mendiak eta gailurrak datozkigu gogora. Nepal Himalaiaren hegoaldean dago eta munduko mendirik altuenak bertan daude (Everest, Makalu, Daulagir, Annapurna...). Baina askoz gehiago eskaintzen du herri honek. Berez klima tropikala du eta mendebaldean lehorrak bada, ekialdean hezea da eta oihanak daude. Herri hau ezagutzera abiatu zen Kristina Garate algortarra. Zer zela eta? Bada, bere herriko lagun bat, Mariel, urtero joaten da hara bere dendan saltzen duen jeneroa erostera (buda txikiak, oihalak...). Aitzakia hori hartuta hegazkina Madrilen hartu zuten Zurichera, han Pakistanera eroango zituen beste batean igo, azkenekoak Katmandun, Nepaleko hiriburuan utzi zituen, ez beldurrik pasatu barik. Izan ere, Katmandu mendi artean dago, eta pilotuek gorriak ikusten dituzte hegazkinak bertan lurreratzeko.

Katmandun, oso hiri pobrea izan arren, turista mordoa

dago (oso merkea da dena) eta hauen bila jakina, bertako biztanleak dena saldu nahian. Hala ere, Kristinaren arabera ez dira marokkoarrak bezain kantsagarriak. Hirian bada horrelako usain sarkor txar bat, arrazoiak erabiltzen duten gasolina gaizki errefinatua.

Katmandun base-kanpamentua esaten dena ezarri zuen Kristinak eta handik Nepaleko bazter desberdinetara egin zituen txangoak. Lehenengo Himalaia parean dagoen Baktapur hirira, bertan menditik ibiltzeko. Ondoren, Nagorkot-era, leku ederra bere hitzetan; hara joan ohi dira ezkonbidaian nepaldar gehienak. Nepaleko mendebaldean dagoen Pokhara ere bisitatu zuen, handik Annapurna ikusten baita, nahiz eta eguraldi txarra zela-eta ezin izan zuen hura ikusi. Azkeneko txangoa Chituan-era egin zuen, hegoaldeko ekialdera. Han oihanak, elefanteak eta krokodiloak ikus daitezke.


Bitxikeria moduan Inurragi anaien eta Juanito Oiar-

tzabalen bertako lagun batekin topo egin zuela kontatu digu Kristinak; euskaraz ere bazezkeen.

Oso merkea da Nepal eta bidaia barne, 200.000 pezeta-gatik egin daiteke hilabeteko bidaia; Kristinari horixe kostatu zitzaion eta ez du ematen damutu zaionik. n

### NEPAL

Biztanle kopurua: 19.000.000  
Populazioaren banaketa: %8,3 hiritar, %91,7 landatar  
Hizkuntza ofizial: nepalera  
Erljioa: %89,5 hindu, %5,3 budista  
Hiriburua: Katmandu  
Biztanleak: 240.000  
Hiri nagusiak: Biratnagar, Pokhara.



\* Bidaia bereziren bat egin baduzu eta orrialdeotan azaltzea nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan



**IRAKURZALEEN TXOKOA**  
BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA

MARTXOKO LIBURUA: "PASAIA BLUES"  
HARKAITZ CANO. SUSA.

APIRILAREN 4AN IDAZLEAREN LIBURUAREN AURKEZPENA ETA SOLASALDIA.  
ALGORTAKO KULTUR ETXEAN, URGULL KALEAN, 7:30ETAN.

Zure eruz

Publizitatea atarazilburu

Hemen Hemen

491 13 37  
73 31 194



# musika

pop rock lehiaketa

## Musikaz blai

Getxoko Pop Rock Lehiaketa berpiztu dute aurten; herriko 17 taldek eman dute izena

Bizpahiru urteko etenaren ondoren aurten berriro abian jarri dute Getxoko Pop Rock Lehiaketa lokala. Errudunak Riff musika denda eta eskolako kideak dira. Gu Miguel Moyanorekin egon gara berbetan eta berak kontatu digu hau guztia. "Getxok talde asko eman ditu; gaur egun jende gitxi gogoratzen bada ere, hortxe duzu adibidez Rufus, edota Punta Galea. Getxo Sound izeneko hura ere (El inquilino comunista...) hor dago. Garai batean herriko taldeak elkarren berri izaten zuten, elkartu egiten ziren gauzak egiteko... Kontua da belaunaldi berriak datozela eta orain ez dago lehengo giroa bezalakorik. Guk lehiaketa honekin hori bilatzen dugu, batez ere. Hori eta, jakina, hasi berriak direnei baldintza onetan jotzeko aukera ematea, promozioa..."

Lehiaketaren etiketa Pop Rock den arren estilo eta joera guztietara zabalik daude antolatzaileak: "Ez dugu, adibidez, hain modan dagoen musika elektronikozko proposamenik jaso baina atek zabalik daude, zergatik ez?" Aurten estilo guztietako Getxoko hamazazpi taldek eman du izena (lehiaketan parte hartzeko taldearen hiru laurdena getxoztarrek osatu behar dute). Gutxi, Miguelen ustetan, berak badaki-eta taldeak gehiago direla eta lotsa barik izena ematera gonbidatzen

ditu. Hala ere, datak (otsaila-martxo) beharbada egokienak ez direla diosku, gazte asko azterketetan ibiltzen da eta. Datorren urtean kontuan izango dute. Entzuleen erantzunari dagokionez, pozik dago Miguel: "Gwendolyne areto handia da eta hasi aurretik jenderik ez dagoela ematen du beti, baina kontzertuak hasten direnean jendea hurbiltzen hasten da eta oso giro polita egoten da".

Ez du Migulek aipatu barik utzi nahi Getxoko Kultur Etxetik jaso izan duten laguntza: "Beti oso ondo portatu izan dira kontu hauekin, dela kartelgintza egiteko orduan, dela diruz laguntzeko...". Baina ez dute bakarrik Kultur Etxearen laguntza jaso, Tio Pete estudioak ere berea jarri

Goian, Zodiacs taldea Gwendolyne-n. Azpian, Miguel Moyano, lehiaketako antolatzaileetako bat



TESTUA: J. A. / ARGAZKIAK: M. M.

# natura

martxo

## Martxo

Udaberriaren atarian ugalketarako prestazen dira animaliak

Otsailan eta martxoan bai hegazti eta bai ugaztunen migrazioa ohiko fenomeno da. Hegaztiak, neguko babeslekue-tatik bueltan, kumeak hazteko lurralde egokien bila etortzen dira. Euretariako asko bidean direla bikoteak osatzen dituzte eta ez hori bakarrik, ernaldue ere egiten dira. Ugaztunen artean, aipagarrienak saguzar espezie batzuk eta zetazeoak dira. Aurreko alean aurreratu genuen bezala, hilabete honetan zehar Uribe Kostako itsaslabarretatik izurde, kalderoi eta bestelako itsas ugaztunen taldeak ikus daitezke.

Martxoan udaberria hasten da, zuhaitz gehienak loratzen hasiak dira eta ugaztun txiki asko

negua pasatu ondoren esnatzen dira; adibidez, loti ospea duen muxarra.

Hegazti ugari araldian edo umeske dabil; harrapakariak, euren lurraldeak zehazteko, ezkon hegalaldiak egiten ikus daitezke. Uherroiek (hau da, ur erroiak, bizkaieraz beleari erroi ere esaten zaio) Barrikako itsas labarretara eta Bilanoko irlaxora jotzen dute euren ugalketarako leku egokiak direlako.

Joan bazaigu ere, ezin da aipatu barik utzi Agate deuna eguna. Gazteen jaitzat jo izan da hau, diru eske ibili ondoren egiten ziren afari eta jolasengatik. Baina, antza, jai honen helburua, udaberrian uzta onak jsotze-da, zuhaitz gehienak loratzen hasiak dira eta ugaztun txiki asko

TESTUA: XABIER BUENETXEA



Sopelako Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleak Agate deuna egunean (bigarren saria eskuratu zuten). Ba ote zekiten lurra makilaz kolpatuz Ama Lurra esnatzen ari zirela?

## Irabazi afari bat 2 lagunentzat

ALGORTAKO TXINATARREAN

# uk



Aurreko zenbakiko irudia, Santa Ana basilizakoa zen. Asmatu duzenon artean IRATXE LÓPEZ URKIJOGertatu da sarritu. On egin!

Bidali zure erantzuna eta asmatzen duzenon artean bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

Erantzunak, gutunez, telefonoz, faxez edota posta elektronikoz bidali ditzakezue:

UK Uribe Kostako Aldizkaria:  
Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa 48990 GETXO  
171 posta kutxa / Tel. Fax. : 491 13 37  
e-mail: aldizkaria@euskalnet.net

\* Oharra: zozketan parte hartzeko beharrezkoa da UK aldizkariaren urteko kuota ordaintzea (2.000 pta. urtero)





Aitor Mazo entrenatzailea eta taldea

## Nesken kirola ere bada

Zazpi urte bete ditu Kakarraldo emakumezkoen errugbi taldeak

Oztopoak oztopo, Kakarraldoko neskek zazpigarren urtea bete dute errugbia jokatzeko. Une honetan hamasei fitxa baino ez dauzkate eta hamabostek jokatu behar dutenez, taldea bermatzeko ez dira nahiko. Hala ere, talde guztiak antzeko egoeran daudenez, hitzarmen baten arabera hamabik bakarrik joka dezakete baina helburua, beraiek esaten duten moduan, benetako errugbira jokatu ahal izatea da.

Errugbia gizonezkoen kiroltzat hartua baita, Kakarraldo taldeko mutilei hasieran ez zitzaizkien nesken taldearena ideia ona iruditu. Aldagelak nesken posterrez beterik zeuzkaten eta neskek mutilen kar-

telen bat jartzen bazuten, hurrengorako kenduta egoten zen. Hainbat eztabaida, borroka eta zelai gainean erakutsitako seriotasunari esker, badirudi aurten taldekideen errespetua irabazi dutela. Horrez gain, zenbait taldekide Euskadiko naiz Espainiako selekzioarako deituak izan dira.

Adinari dagokionez, denetarik dago Kakarraldoko nesken artean. Hamabost urtetik hogeita hamaseira; seinale ezin hobea errugbira jokatzeko adinik ez dagoela. Batzuk hasi berriak dira, besteak askoz beteranoagoak. Azken hauen eginbeharra sartu berriei teknikak irakastea da, kirolera moldatu.

Hainbeste neska batera

kontrolatzea erraza ez dela onartzen dute. Zelai barruan eta hortik kanpo ere lagun handiak dira, ia gehienak koardrila berekoak eta, edozeren gaineratik, errugbia kirola egiteko eta ondo pasatzeko bide moduan ikusten dute. Gogorkeria eta basatikeria topikoetatik urrun, behin zelaira sartuta hainbesterako ez dela azpimarratzen dute. Hasieran ere beraiek gainontzekoen uste berekoak ziren baina behin probatuta erabat lotuta geratu ziren. Ubeldurak-eta izatea normala den arren, beste edozein kiroleran ere lesioak izaten direla gaineratzen dute. Senide askok ez dute errugbira jokatzeko beren erabakia ulertzen baina beraiei ez zaie

axola. Partidu osteko hirugarren denbora neke eta arazo guztiak ahazteko une ezin hobea da.


Etorkizunari begira, taldekide gehiago izatea dute erronka nagusia. Aurten ere, eta urtero bezala, neska gehiago erakartzeko enkarteladak egingo dituzte. Proba egin nahi duenak 619 91 31 00 telefonora dei dezake edota metro ondoan dagoen zelaira gerturatzeko besterik ez dauka astearre, ostegun edo ostiraletan arratsaldeko zazpietatik aurrera. Kirol arloan, arrakastarik lortu ezean, Australiako adibideari jarraiki, batek daki ez ote duten Kakarraldoko neskek beren egutegia osatuko! n

## Alberto Macias

Euskadiko gazte mailako motokros txapelduna

Alberto Macias sope-loztarrak hogeita hiru urte dauzka eta bigarren urtez jarraian motokrossean Euskadiko gazte mailako txapelduna da. Mekanikaria lanbidez, motor munduari erabat loturik dago. —Bigarrenez txapeldun... —Bai eta horregatik pozik, aurrerapausu handia da. —Zailtasunik izan al duzu txapela eskuratzeko? —Beti izaten da gogorra baina aurten iaz baino zailtasun gutxiago izan dut. Lasterketak ez dira hain gogorak izan eta hobeto sentitu naiz. Gainera, esperientzia handiagoa daukat orain. —Lana eta kirola batera eramaten arazorik? —Ondo daramat gustukoa dudana egiten dut eta: motor munduan lan egin eta motor

gainean lehiatu. Mekanika ikasi nuen eta ez dakit zaletasuna familiatik datorkidan, baina ondo konpontzen naiz. —Erronka berririk? —Orain Espainiako txapelketa hastear dagoela hirugarren postua eskuratzeko; iaz bederatzigarren geratu nintzen. Lehen proba Gernikan izango da eta ea lasterketa ona ateratzen zaidan, behin ondo hasita errazagoa da ondorengo emaitzak ere onak izatea. —Lehen lasterketa izateak eraginik izago al du? —Zaleak hurbil izatea abaintaila handia da, laguntza handia ematen du horrek. Baina era berean presioa handiagoa izango da etxean gehiago eskatzen zaiolako norberari. Hala ere, lasterketa ona egitea espero dut. n



## Aritz Larrinaga

Bodyboardean markak hausten dabil sopoloztarra

Hawaiiko egonaldia azaleko kolore beltzaranak eta ezpainetan duen irribarreak salatzen dute. Bertan izan ditu azken probak eta Aritz Larrinaga pozik egon daiteke lortutakoarekin. Iaz bodyboardeko Europako gazte txapelduna izan zen, aurten goi mailako Europako txapelketan bigarren sailkatu da eta munduko probetan 37. postua eskuratu du. 19 urte dauzka eta txikitatik dabil bodyboarda praktikatzen.

Gurasoen hondartzarekiko zaletasunak bultzatuta hasi zen Aritz olatuaren gainean. Hala ere, sopoloztar honek David Bustamanteri zenbat zor dion ez du ahaztu, bere eskutik sartu baitzen txapelketetan. Bakioko lehen txapelketa hartatik hona urte dextente igaro dira. Gazte mailatik goi mailara salto egin arren, Aritzek ez du oztoporik izan bigarren postua eskuratzeko. Bere ustez, presioa askoz handiagoa da gazte mailan, faborito izanda garaipenetik kanpo beste aukerarik ez dagoelako. Goi mailan lasaia ibiltzen da. Kirolarien maila handiagoa da eta ondorioz, lehia ere badago.

Askok surfaren anaia txikitatzat jotzen duten arren, bodyboarda surfa bezain ikusgarria dela deritzo Aritzek. Dena den, Euskadin gutxi batzuk praktikatu eta horregatik Euskal Herriko bodyboardeko selekzioa Aritzek berak eta David Perezek osatzen dute. Sopoloztarrak biak eta lagun minak gainera. Aritzek laudorioak baino ez dauzka bere lagunarentzat eta ez zaio selekzioan dabilen neska bakarria aipatzea ahazten, Eunate Agirre. Kirolarien kopurua haztea espero du Aritzek; bere ustez ez da gauza erraza izango baina bai litekeena da.

Gaur egun, kirola ikasketekin tartekatuta behar du eta ez da, ez, zeregin erraza. Behin batxilergo kurtsoa bukatuta IBEF ikastea gustatuko litzaioke. Izan ere, Aritz kirolerako bizi da. Hona hemen beste datu bat: bodyboardaz ez ezik palara ere jolasten du eta Espainiako gazte txapelduna izateaz gain, duela gutxi Bizkaiko kopa irabazi zuen Gotzon Garairekin batera.

2001eko txapelketak Euskadin egingo direlako pozik, Aritzek emaitza onak lortzea du helburu. Berak dioen bezala, etxean baino hobeto inon ez. Selektioaren etorkizuna zein izango den oraindik argi ez badago ere, datorren urtea gauza politak lortzeko aukera ezin hobea izan daiteke. n





# Jan

aitor elizegi

## Piku-tartaleta



pipazko girlatxearekin eta praline-errusoarekin

Lehenik, pasta errusoz bi kiribil egin behar dira eta kakao-pralinez bete. Jerezarekin eta piku batzuekin salteatu eta labean egosi. Ondoren, almendra-birrina azaletik bota eta doratu. Pasta errusoa eta pikua metaliko batean jarri behar dira.

Pipazko teila karamelatu bat egin. Berotu piku-tartaleta, txokolate zurizko saltsa baten gainean jarri eta pipa-karraskaria lagun duela zerbitzatu.

Amaitzeko, kafe eta eztizko saltsa batekin inguratu. n

tsaso arana, jolastoki-koa



Otoñal rosado

Alkohola: %12 •

Bodega: Olarra SA Logroño •

Jatorrizko Izendapena: Errioxa •

Bistari marrubi kolorea erakusten dio ardo honek, garbia, distiratsua eta gardenena.

Sudurrean aroma arina, franbuesa eta marrubia ekartzen ditu gogora. Ahoan arina, freskoa eta afrutatua.

Edateko ardo erraza da hau, eta ia edozein platerekoren lagun ona. n

### Botilak

Botilen formak eta perfilak ugariak dira, erabilienak hauexek dira:

**Altsaziarra:** botila dotorea da, estilizatua eta garaia. Ardo zuri eta gorrientzat erabiltzen dena.

**Bordelesa:** botila zuzena eta estilizatua da. Munduan erabiliena da, kolore berde ilun edo argikoa. Ondoa konkaboa du.

**Borgoña:** zabalagoa eta harmonikoagoa da, linea bigunak ditu. Ondoa konkaboa du.

Botilaren tamainak eragin handia du ardoaren bilakaeran, ardo kantitateagatik eta oxigeno kopuruagatik.

**Magnum:** ohizko ardo botilen tamainaren bikoitza da. Botila hauetan



La casa barata

Rosak, ezkerrekoak gobernatzeko "La casa barata" jatetxe vegetarianoan

ARGAZKIA: M. M. /

## Artisau sukaldaritza

Besteak beste, jaten duguna gara

Jatetxe txikia, eroso, goxoa da gehienok "Erromoko begeta" izenez ezagutzen dugun jatetxea. Bertan sartuta giroan eta musika lasaian ere nabaritu dugu jatetxe arrunt batean ez gaudela. Integral moduko aldiakiek, sandaloak, kandelek... kutsu berezia ematen diote. Rosak gorbenatzen du, jadanik 18 urte bete dituen jatetxe hau. Bizkaian dagoen jatetxe begetarianorik zaharrena seguruki asko. Iazko apiriletik dabil Rosa jatetxean baina lehengo ildo begetarianoari jarraitzen dio. Platerak zerbitzeaz gain osasuna, eko-

logia eta ingurugiroa ere oso kontuan hartzen dute eguneroko jardunean. Eta honez gain, kozinatzeko artisau era: janari naturala, jaki izeotzurik eta kontserbarik ahal dela ez, barazkiak ahalik eta modu biologikoenean lortuak. Sukaldaritza landua dugu La casa barata-koa; frijitu gutxi erabiltzen dute, aukeran erre edo egosi egiten dituzte barazkiak. Era berean, labe arrunta erabiltzen dute, ez mikrouhina. Barazkien balore bitaminiko guztia gordetzea da helburua.

Eguneroko menu txukuna aurkituko dugu, hiru platerak eta postreak osatuta: lehenen-

go entsalada edo zukua. Egunero entsalada desberdina jatea ez da ametsa, hemen. Bigarren, salda, pure arina edo zopa. Hirugarreneko beti bi aukeran: askotan arroza; eltzekariak ere sarri, garbantuzko albondigak pistoz lagundurik; cus-cusa edo barazkiak saltsa berdean ere eskainiko dizkigute. Amaitzeko postre eskaintza zabala; izan ere, gozozale xamarra dugu Rosa. Edateko ardo ere eskaintzen hasiak dira, bezeroek eskatuta. Baina honetan ere kontu berezia eduki dute eta ardo biologikoa eskaintzen dute, artisau erara egindakoa. 15 bat gradu dauzka; beraz, erne ibili gero behar- itzuli behar baduzu. n

### ERREZETA: MAILUKI KREMA

Kilo erdi mailuki hartu, garbitu, txortean berdea kendu eta irabiagailuaren potoan ipini. Beste aldetik, zukugailuan lau mandarinari zukua atera eta mailukiei bota. Esne kondentsatu txorrotada bat eta esnegain irabiatu apur bat gehitu. Irabiatu dena eta hozkailura sartu bertan ordu bian edukiz. Loditu egingo da krema baten puntua hartuz. Mailuki batzuk zatitu, gainean paratu eta jateko prest.

"La casa barata"  
Astelehenerdik ostiralera 13:00/16:00  
General Echague 5, Erromo  
Menua: 1.100 pta  
T: 94 463 77 08

# eskola partikularrak

**OHO - DBH**  
**ikasgai guztiak**


zure seme-alabak eskolan laguntza behar badu, deitu / T: 94

EUSKARAZ

esperientziaduna



ALGORTA







akabuko punte

lagundu...

# “Danetarako asti emoten deu bizitzak”

Barrikako “Arria”tik bueltan gatzela, Sopelako Zipiriñe Eskolan lotu gara apur batean, gure gaurko laguna hantxe dabil irakasle eta. Herrian sano ezaguna dan Bene Markaida



Bene Markaida

sopeloztarrari espresibitatea eta euskalzaletasuna berez dario. Alkarregaz egongo garen akabuko aldia ez dalakoan, goazen aurrera beste barik, Benek kontatuko doskun istorioa ez da bapere makala eta.

...UK egiten...

TESTUA: ANDONI LLOSA

—Tira ba, Bene, kontatu egizu apur bet zein ixen dan zeuk egineko bidea irakaskuntzan...

—Nik umekaz beharren hamazortzi urte darot, ze ni andra zaharra naz baina irakasle gazte. Magisteritza ikisten 44 urteaz hasi nintzen, 47kaz akaba eta laster 65 urte egingo dotaz... Danetarako asti emoten deu bizitzak, ikusten dozunez... Hasikeran Urdulizen hasi nintzen, hurrengo urten oposaketak egin eta hona etorri nintzen izendatute, harrezkero neure herrin beti.

—Zeure herrin ederto ezta? Etxetik paraje eta...  
—Bueno, hasikeran baneukan bildurre, e! Ez pentsa, ze norberan herrin... bakixu, aurretik ezetuten gaitxue eta okerrak jakiten dire... Gero, bestetik,

hasikeran umen amak ez eusten errespetaten ez etxeko ordurik, ez dendatan ez mezara joaten nintzenen...

edonon etorten jatezan amak, umen kontuk preguntaten. Apurke-apurke irekatsi neuntzen eta ordurik hona ederto, ez dot bape arazorik euki. Eurek ze eretxi euki deuden nitaz? Hori ez dakit baina nik problemarik bapez. Ganera, lehengo taldek... jo, gura neukez orain harek taldek euki! Orain, kantidadea gehitxu egin da baina euskeraren kalitateari eta kontzientziari jagokonez... sano eskastu da. Harek umek euskera parra-parra egiten euden kalen bere bai, askoz gehiago.

—Oso seguru esaten dozu, Bene...

—Halan da eta. Eta ez Sopelan bakarrik, leku

duztiten. Orduko denporatan euskera munduan ibilten ginenok, bai guresok, irekaslek, danok ixen ginen euskeraren militanteak eta hori galdu da. Batzuk dinoude ordun etxeko euskaldun gehiago etorten zala, baina banaka batzuk ziren eta gariko duztik ergaldunek.

Akordaten naz hogeita lau umeko talde bat egoala eta etxetik euskaldun edo erdi-euskaldun zortzi baino ez ziren. Halan eta duzti be, akabun danak urten euden euskera parra-parra. Material aldetik, oraingo aldean urri ibilten ginen, ahal gendune batzen gendun, sarritxen erratu eta bide atzera egin. (...) Gero be, hasikeran gu itsoso honetan ur gotatxu bet baino ez ginen, ametsetan be ez gendun egingo gaurko lekure helduko ginela. Orduko sasoiari A eredu handi zan bertan eta geu txiker. Gaur behinoneskeron (dagoeneko) apurke-apurke D eredu bihurtuko da eskole. Oso alderantziz dago dana. —Hasikeratik batuaz egin izan dozue Zipiriñe eskolan, Bene?


—Ez, ni sartu nintzenen bizkaieraz egiten euden irekaslek eta halantxe segidu gendun, hori bai, egoazan testuk aprobetxatzen genduzan eta kasik duztik batuaz egoazanez... baina umek ez euken bape arazorik. Gero, beluago, jente barri behar zan eskolan eta sartu ziren asko, euskaldun barrik gehienak. Euskeraren gaineko erabagia hartu beharra egoan eta

umeri batuaz egin behar jakela pentsa zan. Apurketa nahiko gogorra ixen zan, ez dakit zer dekun euskaldunok beti gogorrek ixeteko geure arten. Niri bardin jat batuaz zein bizkaieraz, euskera ona bada. Ni neu honezkeru usata nago eskolan batuaz egiten, hementik urtetan dotanean bizkaieraz egiten dotan arren. Pena apur bet emoten deuna zera da: nahiz eta hemen klase bakoitzean ume bi edo hiru egon etxeko jatorrizko euskaldunak direnak eta guresok bizkaiera egiten dotzenak, horrek umek ez deude bizkaieraz egingo.

—Hori ni be ikusita nago kasu askotan.  
—Bai, horrela da kasu banakarren bat ixen ezik. Nik badekot bost urteko lobatxu bet, eta sano kurioso da. Horrek umek hemen batuaz egiten deu, etxera doa eta aitxe euskaldunbarri deko, aitxeri batuaz egiten dotzo, amari eta gariko duztiri etxeko eran egiten doskun arren, kontrakzinoak eta duzti. Hori bai, aitxeri oso-osorik. Kasu baterako:

Aurten zazpigarren urtez antolatu dute Esaera Zaharren Txapelketa Sopelako Nikola Euskaltegiko AEK-ko kideek. Esaera zaharren erabilpena eta jakitea zabaltea dute helburu, eta, bide batez, egun atsegina pasatzea. Txapelketa Apirilaren 8an burutuko da zati bitan. Goizeko zatian kanporaketak egingo dira, eguerdian bazkaria izango da nahi duten guztientzat (2000 pta.) eta arratsaldean finala izango da ANDER DEUNA ikastolako areto nagusian, hau da, bazkariaren leku berean.

Antolakera honako hau da: izena ematen duten talde guztiei 100 esaera zaharren zerrenda ematen zaie, esaerok ikasteko. Txapelketa egunean ezin izango da zerrenda eskuan eduki. Talde bakoitzari aukera emanez, bertso-paperak kantatuko zaizkio, eta bertso bakoitzean esaera zehatz bati buruzko jakingarriak emango dira. Taldeak zein esaerari dagozkion asmatu beharko du,



Bene eta bere lobak

“aitatxu, egingo ditugu hauek?” eta geuri “honek ingo duz?” esaten dosku, badaki bakoitzagaz zer egin, ondo jakin be. Ez deko bapere arazorik umek berez,

umek dana ikisten deude, txikle modukok direz, gu gara okerragok sarritxen. n

asmatuz gero aurrera doa. Geroago hurrengo taldearen txandari ekingo zaio. Talde batek asmatu ezean, ERREBOTEA dago, aldeztatik ezarritako ordenean, bigarren taldeari egokituz, eta asmatu ezean hirugarren taldeari, etab.; ez da bigarren bueltarik egingo.

Arratsaldean joko bera izango da, baina bertso-lorrazak bat-bateko bertsoen bitartez emango dira; horretarako gurekin OIHANE PEREA eta SEBASTIAN LIZASO bertsolariak izango ditugu.

Besterik gabe, anima zaitzete (te) eta ezelako zalantzarik izanez gero deitu gure telefono honetara: 94 676 48 76 NIKOLA EUSKALTEGIA SOPELAKO AEK (goizez 11-1arte, eta arratsaldez 5-8 arte.)

Oharra: bai bazkarirako bai txapelketarako izena emateko epea: martxoaren 31

...bete zure harpidetza fitxa (ikus 2. orrialdea)



### "Tabernatxu" Jatetxea

- MENUAK ASTEAN ZEHAH
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientotxe 39, GETXO. T: 491 16 61

### IDI O -

Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA

460 00 38  
460 63 41

IKASTARO TRINKOAK  
UDA ETA NEGUA  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK

**Ingelesa  
Frantsesa  
Alemanier**

### Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A  
ANDRA MARI GETXO

### SAN IGNACIO Autoeskola

Baimenak:  
LCC - A1 - A2 - B1 - B2 - C1

Tellexe 13 Urkiola 4 Laubide 3  
T: 460 27 99 T: 430 06 05 T: 676 48 39  
ALGORTA ALGORTA SOPELA

# I

## Iñaki Bitxitegia

### W

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

### Algorta



### URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Proiektu berri bat aurrera eramateko momentu egokian zaude. Ahalagin eta interes guztia norabide horretan zuzenduz gero lortuko duzu. Animo!



### AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)  
Ustekabeko gertaera batek lur jota utziko zaitu baina, hala ere, ez duzu horren eragina luzaroan pairatuko. Susto bat besterik ez. Diru iturri berri posible bat. Adi egon.

### GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)  
Erabakiak hartzerakoan ez duzu beldur izan behar. Baina ez ahaztu zerbait txarto badao, zure inguruan dabilen bat baino gehiago poztuko dela.



### META

(Irailak 17 urriak 16)  
Osasun aldetik ondo bazabiltza ere kontuz lan gehiegi egitearekin. Gauzak pilatzen bazaizkizu, lasatasunez hartu eta zure ahalmenen arabera antolatu; ez ezazu zure burua horrenbeste behartu.



### OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Zorioneko sasoi bat datorkizu. Desiratutakoa beteko da eta horrek zure bizitza alda dezake. Une hau aprobetxatu behar duzu.



### HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Diruarekin arazorik izango ez baduzu ere, negozio posible batekin arretaz ibili. Esaera zaharrak honela dio: urrutiko intxaurrak hamabi, bertara joan ta bi



### LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Zure bikotearekin harremanak tentsio une batean daude, baina ez duzue larritu behar. Sarritan ahazten badugu ere, berba eginda gauza asko konpontzen direla kontuan izan.



### HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)  
Honezkerok harreman gehienek lokarriak dakartzatela jakin beharko zenuke. Baina horrek ez du zure askatasuna zertan murriztu. Zure nortasuna eta izaera, horretara moldatu.



### ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)  
Adina benetan zer esan nahi ote duen etengabe galdetzen diozu zure buruari. Kontu horiek alde batera utzi eta denborarik ez galdu; carpe diem.



### EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Oso apal eta larri sentituko zara. Ez ahaztu mundua egoera eta leku berrietaz beteta dagoela. Oraindik badago asko ikusi eta bizitzeko.



### IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)  
Zergatik zaintzen duzu hain gixi zure osasuna? Jan ezazu fruta eta barazki gehiago. Bestalde, zure inguruko norbaitek zurekin gustatuta dabil; ireki begiak.



### NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)  
Osasun aldetik ez bazara ondo sentitzen kirol beharrez zaudelako izango da. Gorputza ez dago jateko eta lo egiteko bakarrik. Mugitu ipurdi potolo hori! Ez dudarik izan, askoz hobeto sentituko zara.

### gurutzegrama

#### EZKER ESKUIN

1. Ahoz behera 2. Denborako 3. Bat. Bularra 4. Nuke, toka. Azkena 5. Galiziako herria. Amerizioa 6. Bokala. Umea, haur hizketan 7. Edgar Allan... Leshoto-ko autotan.  
8. Ezkontza 9. Hitzaurre 10. Badaezpada poltsikoan eraman behar den hori. 1999an

#### GOITIK BEHERA:

A. Agintearen apzian. B. Hura, bizk. Ezkerreko alderdi politikoa. Errepublikatuz, doi-doi D. Ordainez E. Kartera erosi... mutil. Bokala. Zero erdian. F. Sarri-sarri, txitean... Hiru.  
G. Eguzki. Unitate kimikoa. Errepublikatuz gorotza H. Joan zaitetz. Alderdi abertzalea (ald.). Gozoren erdian.

	A	B	D	E	F	G	H
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							
10							

SOLUZIOAK  
EZKERESKUI: Abuztu / Gaurko / E. Ditu / Nihale. Z. / Txi. Am / E. Noma / Puc. Le / Ene / Anho / NAN. In. GOITIK BEHERA: AGINTEAREN / Hs. IU. Oria / Orlanem / Zank. A. Er / Pies. III / Ebi. Mod. Ka / Zant. EA. Oe.



BUKATU DA.



# Turikalda

JOKIN GARATE BAYO  
Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Ainguruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO

## GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”

Prentsa - Fruitu lehorrak -  
Aldizkariak - Litxarriak

Orduña 1 T: 430 22 13  
T: 460 02 88  
GETXO ALGORTA

## GARRO

GIZONENTZA-  
KO MODA



Tellexe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

# Asier Kareaga

## RADIO EUSKADIKO ESATARIA

“Kazetaritza asko maite behar da lanbide honek eskatzen dituen nekeak hartzeko”

Asier Kareaga kazetaria Bilbon jaio zen baina beti bizi izan da Algortan. Gaur egun 31 urteko gazte honek Radio Euskadiko kirol informatiboetan egiten du lan. Zeregin honetan laster bost urte beteko ditu.

Zergatik kirol-kazetaritza?

Kirola beti ere asko gustatu zaidalako. Hogeita bi urte nituenean Egin egunkariak Uribe Aldean zeukan ordezkaritzan lan egiten hasi nintzen, hasieratik kirol arloan. Baina irratia gehiago gustatzen zitzaidanez laster Getxo Irratia-n lan egitera pasatu nintzen. Han bi urte eman nituen eta ondoren Radio Popular-era joan nintzen. Urtebete han, gero beste bat Cope irrati katean... Ikusten duzun ez ibilbide luzea, baina hori bai, beti kirol munduari lotuta.

Gaur egun zertan zabilta Radio Euskadin?

Denbora gehiena estudioan igarotzen dut, irratsaioa aurrera eramateko egin behar den lan guztia koordinatzeko. Orain dela bi edo hiru urte, batez ere kaleko lana egiten nuen, kirol emankizunak eta abar. Lan egiteko bi mota oso desberdin dira baina, nire iritziz, denetarik egin behar da kazetari ona izateko.

Ez duzu kirola ez den beste arlo batean lan egiteko gogorik?

Batzuetan, erreta nagoenean, beste arlo batean probatzea burutik pasatzen zait. Behin, aste betez informatibo bat egin nuen Radio Euskadin bertan, baina dena dela kiroletan oso gustura nago.

Kirol-kazetaritzan lan egiten aste-buru liberrik ez...

Bai, hori egia da. Aspalditik ezin izan dut asteburu bat kanpoan pasatu, eskiatzera joan... Jende askok egiten dituen plan horiek ezinezkoak dira niretzat, beti lan egin behar dudalako. Baina ohitura nago eta gustura egiten dudan sakrifizioa da.

Irratian lan eginda, posible duzu zure jai egunetan deskonektatzea? Oso zaila da, ia ezinezkoa. Baina hau ez da bakarrik kirolekin gertatzen. Kazetariak, eskuarki, ezin du jai egunetan lana alde batera utzi, bestela lanera bueltatzen denean guztiz galduta egongo da. Kazetariak beti egon behar du ondo informatuta.

Kazetaritza jateko beste ematen al du Asier?

Gogor egin behar da lan. Jende asko dabil honetan eta guztientzako lekuri ez dagoenez, oso zaila da. Komunikabide batzuetan beste batzuetan baino hobeto egiten da lan baina, oro har, egoera ez da ona. Kazetaritza benetan maite izan behar da lanbide



honetan eskatzen dituen nekeak hartzeko. Baina gauza guztiakin gertatzen den moduan, gehienetan gogor saiatuz gero lortu daitezke.

Zure lanean kirolak garrantzi handia dauka, baina zure aisialdian kirolik bai? Igeriketa, besterik ez. n

TESTUA: VERONICA MUÑOZ

### diala FM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	
Euskadi Irratia	88.9
Kosta Irratia	93.2
Euskadi Gaztea	94.7
Gorliz Irratia	95.0
Bilbo Hiria	96.0
Bizkaia Irratia	102.6

# HERRI TORRONTEGI MOTORZALEA

## “Neuk gidatzen dut orain nire bizitza”

Enpresari lanetan dabilen arren, motor mundutik hurbil jarraitzen du. Euskal herritar guztien heroi bihurtu zen 89an lortutako garaipenei esker. Javier Torrontegi, “Herri” guztiontzat, motor gainean arrakastaren ezta eta lesioen ozpina ezagutu zituen. Lasterketak utzita, bere bizitzaren norabidea eta galdutako denbora berreskuratzea bihurtu dira bere erronkak orain.

Txekoslovakiako saritik hona zertan ibili da Herri? Horren ostean lasterketekin jarraitu nuen, baita emaitza onak lortu ere. Geroago etorri ziren lesioek eragin handia izan zuten nigan eta hortik aurrera hutsetik hasi behar izan nuen. Motorrak oraindik nire pasiorik handiena dira baina une bat heldu zen ezin izan nuen horretarako behar zen denbora guztia atera. Neurri batean zeregin horrek mugatzen zaitu, jendeak lehenago lortutakora ez zarela helduko uste duelako eta beharrezko laguntzarik gabe gelditzen da bat. Aseguru eta motor kontuekin hasi eta hemen nabil, buru-belarri sartuta.

Zelan daramazu enpresari lana?

Ondo, oso pozik gaude eta urtetik urtera hobera goaz. Egunko hogeita lau orduak labur gelditzen dira hainbeste kontu aurrera eraman ahal izateko. Hala ere, lasterketetan bezalako lantaldea daukat eta haiek emaitza ona izatea posible egiten dute. Harro nago beraiekin egon ahal izateaz. Batzuetan ez zait lana askorik gustatzen inbidia eta zikoikeria asko dagoelako. Nagusi lana betetzen dut eta batzuetan gustukoak ez ditudan gauzak egin behar izan arren, azkenean bakoitzak merezi eta lan egindakoaren uzta eramaten du etxera.

Abiadura erabat ahaztuta daukazu?

Barruan huts handia uzten du. Gaztea naizen arren erabat utzi nuen eta aurtan lasterketarik egin gabe igaroko dudan bigarren denboraldia izango da. Denbora beste gauza batzuetarako erabiltzen dut. Ez dut lanik egiten lanpetuta egon behar dudalako; lan egiten dut gustatzen zaidalako, besterik gabe. Lasterketak ikustera joaten naiz, egia da bihotzean zerbait pizten zaidala, baina ohitu beharra dago, edo behintzat saiatu. Lasterketetara By Queroseno (gidari nintzenez izan nuen azken taldea) taldeko zuzendari gisa itzuli naiz eta, beraz, mundu horrekin harremana mantentzen dut. Hala ere, gehiago asetzen nau zirkuitoetara joan eta inolako ardurarik ez dudala ikusteak. Zerbait betetzeko utzi duzula uste al duzu?

Munduko txapelduna izan banintz egun harroago egongo nintzateke. Baina ahal izan nuen guztia egin nuen, lortutakoa betetzeko asko sufritu dut. Batzuetan pentsatzen dut ni baino zaharragoak diren gidariak badaudela, oraindik motor baten gainean jar naitekeela; baina sakonki aztertuta neure buruaz harro nagoela badakit, harro nago anaiarekin, hasieratik ondoan izan dudan jendearekin. Askok babestu naute baina azken finean ez da nahikoa izan. Diruak izugarriko indarra du kirol honetan eta gu guztien artean xumeak izan arren, sari handiak irabaztera heldu ginen. Horixe da nik egiten dudana laburpena.

Jendeak oraindik Herri deitzen zaitu.

Urte batzuk daramatzat hemen lanean eta orain kaletik noala arraroa egiten zait. Beti beste bat gehiago izan naiz, orain inoiz baino arrazoi handiagoarekin. Lehen garrantzitsuagoa nintzen telebistan atera eta



lagun gehiago neuzkan. Gero ustezko lagun handiak orain ondoan ez ditudala konturatzen naiz. Baliteke kirola uztearen alderik gogorrena hori izatea, motor gainean egon nahi izatea baino gogorragoa. Bihotza duen edonorentzat gogorrena hori da.

Zeren faltarik ez duzu sekula izango? Munduko txapelketan aritzea sakrifizioa izugarria da eta lasterketak utzi nituenetik, pozgarria da behin astea bukatuta asteburua libre izatea. Hamalau urtez asteburu gehienak hegazkinetan eman ditut, konpromisoak betetzeko astirik eduki gabe. Orain neuk gidatzen dut neure bizitza, lehen txontxongiloa nintzen. Gustukoa nuena egiten nuen baina oso mugaturik nengoen.

Iloba zeure urratsei jarraiki duzula, zein gomendio emango zenioke? Kirol guztietan bezala, sorte handia edukitzeaz gain norberak bere barnea asetzea izan behar du helburu. Hamasei urterekin motor tailer batean lanean hasi eta Bartzelonara joan nintzen. Ikasketak, dena utzi nuen lasterketetan aritzeko. Ez nago prest eta ez naiz gai beste norbaiti zer egin esateko. Baina norberak arrakasta lortuko duela ziurtat jotzen bada eta dena uzteko gauza sentitzen bada, zenbat eta lehenago egin hobeto.

Etorkizunerako planik ba al du Herrik?

Ezkonduta (martxoan ezkonduko naiz), eta lanean jarraitu. Negozioa zabaltzeko asmoa dugu, Mungian denda bat zabalduko dugu eta bizitza gozatu, galdutako denbora berreskuratzen saiatu. n

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

2000. URTEAN KIROLA  
EUSKARAZ DATOR  
**AEROBICA**

martxotik ekainaren 29ra arte



## Aerobica euskaraz

NON: SAN NIKOLAS IKASTOLAN

NOIZ: Astelehen, astearte eta ostegunetan gaueko 20:30etatik 21:30etara.

PREZIOA:

- Bazkideentzat: 3.000 pta
- Ez bazkideentzat: 3.700 pta

IZENA EMATEKO:

Diru sarrera kontu korronte honetan egin behar da: 3035-0108-06-1081032766

OHARRA:

Matrikula egiteko egin orain diru sarrera, bankuko agiria eramanez  
Bizarra Lepean elkarteak egoitzara (Salbidu kalea, 5 1ºa)  
arantzaletxe Getatik Sotara. Telefonoa: 94 430 19 32





atzera begira



## OTXANDATEGI DANTZA

BITOR EGURROLA

Argazki hau 1943 hartu zen, hau da, duela ia 60 urte. Ba horixe da Berangoko Otxandategi Dantza Taldearen adina; ez da gitxi gero! Berangoko gazte belaunaldi gehienak dantzan ikasi dute talde honen eskutik. Ez dute inoiz eliteko dantza taldea egin gura izan kontrakoa baino: jende guztia dantzan jarri nahi izan dute. Gaur egun musikari eta dantzariekin 70etik gora lagunek osatzen dute taldea. Euskal Herria osoko dantzak eskaintzen dituzte; martxoan zehar Zuberoako Maskarada erakutsiko dute Uribe Kostan zehar. Urte askotarako!

ZUTUNIK

Mando Fernandez, Juan Aranzeta, Juan Zabala, Juan Cortina, Francisco Gorriño, Antonio Basozabal, Atxurra

BELAUNIKO

Hilarito Aretxaga, Martin Mota, J. L. Agirremota, Zelaia, Luis Lugaesaresti, Hilarito Aresti



# Bizarra

## Euskara Elkarte

5 urte beteko dituen honetan erronka berriei aurre egiteko beste pausu bat eman gura du Bizarra Lepoanek autofinantziazioan eta, halaber, euskaldun gehiago inguratu. Hau dela-eta, Bizkaiko hainbat euskara elkartek Topagunearekin batera bazkide kanpaina bati ekin diogu.

Ezin dugu pentsatu Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Udalek bakarrik irtenbidea emango diotela euskararen egoerari. Gizarte garen aldetik norik geure erantzukizuna daukagu.

## eskaintzen duguna

- ◀ Bizarra Lepoan izeneko aldikariaren ondoren jaio den UK aldikaria hilero-hilero etxean jasotzen jarraituko duzu.
- ◀ Euskaldun zahar eta berriei begira antolatzen den BERBALAGUNA egitasmoan eta bere baitan antolatzen diren ekitaldietan (hitzaldiak, tailerrak, irteerak, etab.) doan parte hartu ahal izango duzu.
- ◀ Irakurzaleen bilgune izateko jaio den "Irakurzaleen txokoan" parte hartzeko aukera.
- ◀ Euskal Nortasun Agiria, ENA, Bizarra Lepoan Euskara Elkartean kudeatuko dizugu.
- ◀ Bazkide eginez gero beste hauek ere eskaintzen dizkizugu:
  - Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietan %25eko beherapena izango duzu
  - Getxoko udalerrian euskararen aldeko sentiberatze lanak bideratzeko gunea Bizarra Lepoan duzu.
  - Getxoko udalerrian euskararen normalkuntzarekin zerikusia duten gaien erreferentzi-gunea Bizarra Lepoan elkartean izango duzu.

### Bazkide txartela

Izena:	1. abizena:	2. abizena:
Helbidea:	Herria:	Posta kodea:
Telefonoa:	E-posta:	Jaioteguna:
Jaioterria:		
Honen bitartez baimena ematen dut Bizarra Lepoanek kuota kobra dezan		
Kuota arrunta: 6.000 pta. <input type="checkbox"/>	Bi epetan ordaindu nahi baduzu ipini x <input type="checkbox"/>	
Kuota familiarra: 10.000 pta. <input type="checkbox"/>		
Langabetu edo ikasle kuota: 3.000 pta. <input type="checkbox"/>	Kontu zenbakia (20 zenb.):	



## MUNGIA

### oKINDeGIA

Algortan badaukagu  
artisauen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076  
ALGORTA



## TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15